

Idazketa paraleloaren metodoa idazten irakasteko

Mabel Soracco Quintana

Artikulu honetan, bigarren hizkuntzan idazten irakastearen aldeko argudioak azaltzen ditu egileak eta erakusten du nola idatzi eta zuzendu lehenengo urratsetan gutun bat idazketa paraleloaren metodoaz.

“Idaztea hitz egitea bezala da: berezko dohain bat horretan ikasiz gero.”
(Michael Newby).

“Idazteko talentua artetik dator, ez asturutik; dantzan ikasi dutenak errazago mugitzen diren bezala.”
(A. Pope)

Bi aipu horiek asko argitzen dituzte geure irakaskuntzan oso kontuan hartu beharreko bi puntu:

- a. Idaztea egitura jakin bat duen trebetasuna da; egitura hori ikasi egin behar da, eta, beraz, irakatsi.
- b. Komunikatzeko beste modu bat da eta, eraginkorra izateko, eduki interesgarria edo erakargarria behar du izan.

Ikerketaren emaitzak Idazketaren irakaskuntzari garrantzi handia eman zaio azken urteotan eta, besteak beste, idazle onen ezaugarriak ikertu izan dira. Ikerketa horien ondorioek erakusten dutenez, idazle guztiek eduki ohi dute buruan garbi testuaren *zertarakoa* (zer eta zergatik idazten duten), *antolakuntza*, egin beharreko urratsak, alegia, eta *norentzako*, nori zuzendua dagoen.

Askotan galdetu izan diegu geure ikasleei ea zein diren idazterakoan aurkitzen dituzten zailtasunak. Eta esan behar dugu gehienen arrangurak izaten direla: “inspiraziorik eza”, hiztegi egokiaren falta edo erabili nahiko lituzketen egitura gramatikalak ez ezagutzea. Ez du ia inork aipatzen materialak egoki antolatzeke zailtasuna. Alabaina, idazkiren bat zuzentzen denean topatzen diren arazorik usuenetakoak puntuazio zuzenik eza eta materialak paragrafotan tolestatzeko oztopoak dira, eta horrela, jakina, ezin gaia era logiko eta koherentean garatu.

*Inplikazio
pedagogikoak*

Zein ondorio dakar horrek pedagogian? Nola bihurtu ikasleak lehen esandako ezaugarri horien jabe izango diren “idazle on”? Honako hauxe da egin beharrekoa:

- a. Edukia eta antolamendua hobetsi gramatika baino areago.
- b. Gaiari buruzko informazioa eman eta hiztegi egokia eskaini.
- c. Idaztea eta beste lan batzuk bateratu ikasgelan, idaztea ataza bakar-kakoa izan ez dadin eta bai denok parte izango duten talde lana.
- d. Ikasleengan testuen idazketari buruz jarrera baikorra sustatu, eta saiaturaz gero beren helburuak lortuko dituztelako konfidantza sortu.

*Idazketa
paraleloaren
metodoa*

Testu idazkitaren irakaskuntzari alderdi askotatik hel dakioke. Guk hemen testu-eredu batean oinarritutako idazketa paraleloaren metodoa azalduko dugu (model-based parallel approach).

Urratsak

Hauxe da metodoaren eskema: eredu → aukeraketa → praktika → informazio berria → testu paraleloaren idazketa → ebaluazioa ereduarekin erkatuz.

Adibide bat

Hona ondoren deskribatuko dugun ariketaren eredu bat: Carmen ikasle espainiar bat da Estatu Batuetan dagoena. Bere lagun bati idazten ari zaio, han zertan ari den eta hurrengo hilabeteetan zer egin asmo duen adieraziz. Irakatsi beharreko hizkuntz puntua da: “geroko asmoak”.

Ariketa hau urriaren hasieran egingo da. Ordurarte ikasleek beren etxea edo gelaren bat edo lagun bat deskribitzeko, eguneroko bizitza kontatzeko testuak idatzi dituzte, parrafo bakarrekoak. Orain eman zaiei ereduaren antzeko eskutitz informal bat idatzi beharko dute etxean. Egoeraren (ikasketa-bidaia, negozioak, oporrak) eta edukiaren (lekuaren nolakoa, hor zer egiten den, geroko asmoak) berri ematen zaie.

• *Materiala*

Circles 2 (30-31. orr.)

• *Lehenengo ikasaioa*

Testua irakurri eta ulertzea eta gramatikako gaia analizatu eta lantzea.

- a. Helburua zein den jakiteko irakurketa azkarra: informazio ematea, alegia.
- b. Gutuna berriro irakurri,
 - testuari buruzko galdera orokorrei erantzuteko;
 - Carmenek burutzen dituen egintzak zerrendatzeko;
 - “geroko asmoak” adierazteko modua analizatzeko.
- c. Eskutitzaren egitura analizatu: data, hasierako eta azken agurrak eta eitea (formala edo kolokiala). (Puntu honetan, beste formula alternatibo batzuk irakasten dira; eta arreta berezia eskaintzen zaie parrafoei eta hauek banatzeko moduei sangria edo gune bikoitza).

- d. Material-antolakuntzaren analisia: parrafo bakoitzeko ideia nagusia eta ideien antolakuntza logikoa.

• *Bigarren ikasaioa*. Idazkiak zuzendu

Ikasleek beren gutunak zuzentzen dituzte lapitzez edo beste kolore bateko boligrafoz.

- a. Eskutitzaren itxura orohar “zuzena” den galdetzen zaie (antolakuntza eta paragrafoak). Horrela ez balitz, ertzean edo azkenean adieraziko dute. Data eta agurrei ere arreta jarriko diete, oker dagoena zuzenduz.
- b. Ikasleek beren gutunak lagunekin elkartrukutzen dituzte. Bakoitzak jaso duena irakurri eta agindutako puntuak garatu dituzten ala ez adieraziko dute ertzean.
- c. Egileari itzuliko diote eskutitza eta honek erabakiko du zer egin, berriro idatzi edo irakasleari dagoen-dagoenean eman. (Eredua oso argia baita, askotan ez da zuzenketarik izaten.)

Beren lanarekiko jarrera kritikoa, erantzukizun-sena eta seriotasuna garatu nahi ditugu ikasleengan bigarren urrats honetan, bestela eskutitza errepikatu egin beharko baitute (irakasleak ez die berridatziko). Gure zuzenketa-lana arindu egingo dugu, gutunak arras hobetuak edo alde zuzenduak iritsiko baitzaizkigu eskuetara.

Galdera bat: nola zuzendu gramatika eta hiztegia? Normalean sinboloz baliatzen gara (esaterako Aa = aditzaren aldia gaizki edo Oe = ortografi errorea). Eskutitza era horretan zuzendu eta ikasleari itzuliko diogu; hauek beren kasa zuzendu eta berriro eskuratuko digute, azken zuzenketa egin diezaiogun. Zenbaitetan, okerrik usuenen zerrenda egingo dugu, gero ikasgelan zuzentzeko.

Ondorioak

Begibistakoa denez, idazketa paraleloa oso ariketa kontrolatua da eta, beraz, ez dio inprobisazioari leku handirik uzten. Baina maila honetan helburua da, alde batetik, materiala antolatzen irakastea eta, bestetik, lehen idazketak sortzen duen “beldurra” gaingitzea; izan ere ikaslea ez baitago, ikastaroko une horretan, bigarren hizkuntzan adierazteko bere gaitasunaz oso seguru. Gero izango du beste idazki batzuetan askatasunez idazteko aukera gehiago (ikus ale honetan bertan metodo progresiboa).

Azken hitz bat zuzenketari buruz: oso garrantzi handikoa da idazkiko alderdi onak eta gustatu zaiguna azaltzea. Ez da horretarako hitz askoren beharrik: “Oso interesgarria / Dibertigarria / Egia? Ez nuen uste izango / Zurekin ados / Hiztegia ondo erabili duzu / etab”. Ez da ahaztu behar bigarren hizkuntzan idazteak ahalegin handia eskatzen diola ikasleari eta egoki dela irakasleak ordainetan, zuzenketa-sinbolo multzo bat edo azken kalifikazioa bat baino erantzun beroago eta suspertzaileagoa eskaintzea.

Itzultzailea: Boni Urkizu

Bibliografia

Keh, C.L. 1990. A Design for a Process-Approach Writing course. *English Teaching Forum*, Urtarrila.

Bobb, L. et al. 1990. Circles 2, SGEL.

Bobb, L. et al. 1991. Circles 3, SGEL.

Hedge, T. 1998. *Writing*. O.U.P.